



## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza



**Asteartea**  
**2008-01-22**

VIURTEA 1.342.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA


[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Leaburun hurrek gustura igaro zuten jolasekin. ANDER OTEZABAL

## SAN SEBASTIAN EGUNA OSPATZEN, GUREAN ERE

**TOLOSALDEA** Bai Leaburun, bai eta Orendainen ere herenegun ekitaldiak antolatu zituzten San Sebastian Egunaren harira 7



Ikusle ugari izan zituen, eguraldia lagun, aurtengo krosak. ANDER OTEZABAL

## 600 gaztetxo inguru XXI. Ero Etxe krosean

**TOLOSA** Antolatzaileak «gustura» agertu dira aurtengo lasterketarekin; sariak parte-hartzaile guztientzat banatu zituzten 3

## Lapurtzen saiatu dira eskualdeko hainbat herritan

**TOLOSALDEA** Orendain, Amezketa eta Leaburun egin dituzte saiakerak; ez dute dirurik eraman 7



HITZA

**PELLO IBARGUREN** EHIZTARIA

«Txakurrak egindako lana amaitzen jakin behar du ehiztariak»

**TOLOSA** Espainiako Oilagor Txapelketan bigarren postua lortu du tolosarrak 5



## Azken segundoan galdu zuten Tolosa Aralarrek liderraren aurka

**Tolosa** » 64 eta 67 galdu zuten E. Leclerc Vitoria taldearen aurka; tolosarrek Gonziren baja izan zuten berriro ere.

### ERREDAKZIOA

Liderraren aurrean maila ona erakutsi zuten Tolosa Aralar saskibaloitako taldeak, baina azkenean ezin izan zuten garaipena lortu, azken segundoan E. Leclerc Vitoriak sarturiko hiruko batengatik, 64 eta 67 geratu baitzen markagailua.

Oraingo honetan ere, taldeak Gonziren baja izan zuten. Erreku-peratzen ari den arren, beste egun batzuetan atsedena hartu beharko du. Horrela, Alain-ek beste behingoz lehen taldearekin minutu batzuek gozatzeko aukera izan zuten.

E. Leclerc Vitoriak denboraldi honetan partida bakarrik galdu du eta euren itxura ikustea nahikoa zen horretaz konturatzeko. Pasa den denboraldian TAU Ceramica Baskoniaren harrobian jokatu zu-

ten taldekide askok eta postu guztietan altuera aldetik nagusi ziren. Partida nahiko parekatua izan zen hala ere. Denbora gehienean liderra aurretik izan zen markagailuan baina alde nabarmenik lortu gabe.

### Defentsan lan handia

Lehen laurdena bi puntuko aldearekin soilik amaitu zen kanpotarren alde (13-15). Defentsan lan gogorra egin zuten etxekoek, bai baitzekiten hori zela aukera bakarra partida irabazteko. Arabarrak multzoko lider dira eta euren garaipenak erosotasunez lortzen dituzte normalean (pasa den astean 125-81 hirugarrenaren aurrean). Beraz, garbi zegoen partida irabazteko aukera bakarra, markagailua baxu mantentzean oinarritu behar zutela.

Bigarren laurdena ere bide bereetik joan zen, eta atsedena dirira bost puntuko errentarekin joan ziren gasteiztarrek (31-36). Hirugarren laurdena irabazteko lortu zuten etxekoek defentsan lan on baten ondorioz (14-11) eta azken laurdena

hasterako bi puntutara gerturatu ziren (45-47).

### Partida erabaki gabe

Azken laurdenera, beraz, ezer erabaki gabe iritsi zen partida. Nahiz eta emaitzak bigarren faserako baliorik ez izan, partida irabazteko garrantzitsua zen, eta horren bila joan ziren etxekoak eta lortzeko zorian izan ziren. Izan ere, markagailuan 64-64 ageri zela, bi segundoan faltan hirukoa erdietsi zuten kanpotarrek. Etxekoek azken saiakerak ez zuten saririk izan eta hortxe amaitu zen partida.

Datorren astetik aurrera, partida garrantzitsuak hasiko dira tolosarrentzat, bigarren faserako balioko dutenak ziurrenik. Hasteko, datorren larunbatean 19:30ean azken sailkatuari egingo dio bisita, Gasteizen jokatuko baitute partida UPV Alava taldearen aurka. Joanezko partidari, tolosarrek nagusitu ziren (79-73).

Bestalde, klubeko abonuen zozketan, zenbaki saritua 327a izan zen.



Bikain hasi du denboraldia Joseba Ormazabalek. E. EZEIZA

## Euskadiko Mendiko Eski Txapelketan, Ormazabal garaile

**Tolosa** » Luz Ardiden eta Baregesen jokatu duten Euskadiko Txapelketa, eta nagusi izan da eskiatzaile tolosarra bi egunetan.

izan zen Luz Ardiden estazioan, eta bestea igandean Baregeseko estazioan. Bi egunetan nagusi izan da Joseba Ormazabal tolosarra.

Duela bi aste ekin zion eski alpinismoko aurtengo denboraldiak. Joseba Ormazabal eta Joseba Tobar tolosarrek Euskadiko Kopako lehenengo proba jokatu zuten Cauteretsean, eta emitza bikainak lortu zituzten. Ormazabalek erraz irabazi zuten, eta bigarren Tobarrek egin zuten. Denboraldia ezin hobeto hasi dute, beraz, eskiatzaile tolosarrek.

### ERREDAKZIOA

Euskadiko Mendiko Eski Txapelketa jokatu dute pasa den asteburuan, eta Joseba Ormazabal izan da irabazlea.

Bi jardunaldi izan ditu Euskadiko Txapelketa; bata larunbatean

## Hirugarren postuan da Laskorain, lehen itzulia amaitu ostean

**Tolosa** » Larunbatean Usabalen jokatuako partida 4-1 irabazi zuten horitxoek UZ S. Coop. taldearen aurka.

### ERREDAKZIOA

Joan den astean Gipuzsala, Nazional B mailako lider berriaren aurka galdutako norgehiagokaren ostean, berriro ere zutitu eta derbi berri bati ekiteko aukera izan zuten tolosarrek iragan larunbatean UZ S. Coop. taldearen eskutik, eta Laskoraintzat izan ziren puntuak, 4-1 garaitu baitzituzten arerioak.

«Emozio eta dardaraz» beteriko norgehiagoka eskaini zuten bi taldeek Usabalgo kiroldegira hurbildutako zalegoaren aurrean, eta emaitzaren zabaltasunak bestelakorik pentsarazi dezakeen arren,

«azken unera arte besorik jeitsi ez zuten arerio gogor baten aurka erdietsitako garaipena sinatu zela baieztatzea da egin daitekeen aitormenik egokiena».

Norgehiagoka berehala ipini zen maldan gora etxekoentzat, bi atean gertatutako zenbait jokaldi arriskutsuaren ostean, Urretxuko markagailura igo baitzen estrenako gola kontraeraso bikain bati esker. Telleriak eta Barriolak dena den, berehala jaregin zuten taldeak ordura arte bildutako tentsio guztia, elektronikoko 2-1eko emaitza isladatuko zuelarik aldegetarako bidean.

### Aukera ugari tolosarrek

Bigarren erdian, aukera garden ugari gozatu ahal izan zituzten bi atean, gehienak Alonsoren mutilen sinadura zeramaten arren, emaitzaren estutasunak eta Urre-

txukoen eraso «arriskutsuek» ez zuten erlaxatzeko aukerarik eman oraindik, eta norgehiagokaren minuturik zailenetan, Domentxe atezaina arduratu zen ikastolakoan atean segurtasuna ezartzeaz.

Partidaren amaierarako 3 minutu falta zirenean, Saldias taldek kapitainak «dotoretasunez» ezarri zuten 3-1eko. Beraz, bazirudien partida tolosarrentzat zela; baina ez ziren golak hor amaituko, horitxoek jarraitu egin baitzuten gogor, eta azken minutuan, Zabalak azken gola sartu zuten. Horrela lortu zituen Laskorainek hiru puntuak.

### Larunbateko taldekideak

Ondorengoak izan ziren larunbatean Usabal kiroldegian partidajokatu zutenak, eta ondorioz, Laskorain taldeari garaipena eman ziotenak: Domentxe, Barriola, Ekhi, Amatriain, Saldias, Murgi, Otxoa, Telleria, Telletxea, Zabala, Yustos eta Urko. Entrenatzailea Alonso eta delegatua, Javi izan ziren.

### Laskorain hirugarren postuan

Garaipen honi esker, hirugarren postuan da eta 34 puntu ditu Laskorainek lehen itzulia amaitzean. Datorren astean Bilbo Exbasa, zilarrezko mailan aritzen den taldearen filiala izango dute bisitari ligako bigarren txanpari hasiera emango dion partiduan.

## Bengoetxea eta Ruizek Titin eta Laskurain mendean hartu dituzte

**Leitza** » 22-18 irabazi zieten pronostikoen aurka; leitzararren lan bikaina erabakiorra izan zen partida irabazteko orduan.

### ERREDAKZIOA

Binakako Pilota Txapelketaren baitan, Titin III.ak eta Laskurain izan zen, partidaren amaiera aldean nahikoa indar izan zuelako garaipena eskuratzeko.

Titin eta Laskurain indartsu irten ziren pilotalekura, eta 5-1 jarri ziren aurretik. Urdinak, hau da,

Patxi Ruiz eta Bengoetxeak markagailua berdientzea lortu zuten, baina segituan hasi ziren gorriak tantoak egiten eta berriro ere aurretik jarri ziren, 10-6. Partida are eta ikusgarriago egin zuten urdinek, izan ere, Bengoetxearen maila bikainari esker, buelta ematea lortu zuten. 10 eta 12 zegoen markagailua, eta lehen aldiz urdinen alde zegoen dirua. 18 eta 18 ere jarri ziren gero, eta azkenean Bengoetxeak eta Ruizek eutsi egin zioten mailari, eta gorriak mendean hartu zituzten, beste lau tanto eginez. Azken emaitza 22 eta 18 izan zen.

### Bi leitzararren arerio

Datorren asteburuan bileitzar, Barriolak eta Bengoetxeak elkarren aurka jokatu dute Binakako Txapelketan. Hain zuzen ere, Abel Barriolak Gonzalezekin batera jokatu du, Oinatz Bengoetxea eta Patxi Ruizen aurka.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona bat behar da. 656 41 68 08.

### SALGANI

■ **Pago egurra.** Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615 75 57 62.

**@ Zurea da hitza.** Zure inguruko berriak sartzeko aukera duzu gure webgunean. Horretarako, Zurea da hitza atalera jo beharko duzu, zure datuak jarri eta albistea edota bitxikeria sartu. Argazkiak sartzeko aukera ere baduzu, eta orain arte sartutakoak ere ikus ditzakezu. Beraz, badakizu, berriren bat gure webgunean eta egunkariaren agertzea nahi baduzu, sar ezazu gure webgunean:

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)



Parte-hartzaileetako bat helmugara iristera zihoala. ANDER OTEZABAL

## Eskualdeko txikiak Behobiakoen pare ibili dira lasterka

**Kirola** » Bederatzi eta hamalau urte bitarteko 600 gaztetxok hartu zuten parte herenegun, Ero Etxe elkartearen krosetan.

### ERREDAKZIOA

Behobia txiki baten antzera, korrikalari gaztetxoz bete ziren igandean Tolosako kaleak. Ero Etxe elkarteak antolatutako lasterketa herrikoi honetan 9 eta 14 urte bitarteko 600 gaztetxo inguruk hartu zute parte. Aurtengoa krosaren 21. edizioa izan zen. Hala, antolatzailerak «gustura» agertu ziren aurtengo probarekin.

Lasterkariak sei talde edo mailatan banatu zituzten, hauen arabera, metro gehiago edo gutxiago zeharkatu zituztelarik. Parte-hartzaile txikiak benjaminak izan ziren, eta helduenak, infantilak. Mailaketa honen arabera, eta ondorengoak izan ziren garaile: Maddi Garikano, Josu Ibarbia, Jone Gomez, Odei Arrieta, Ainhoa Garikano eta Odei Martinez. Hauei, proba amaitu ondoren, an-

tolatzaileei, garaikurrak banatu zizkieten. Hala ere, irabazleentzat ezezik, gainontzeko parte-hartzaileentzat ere izan ziren sariak, hauen artean hainbat opari banatu baitzituzten.

Aipatu bezala, 21 urte bete ditu aurtren Ero Etxe elkarteak antolatutako krosak, eta galdu ezinezko ohitura bilakatu da jada korrikalari txikienentzat. Ohitura jarraituz, urteko hirugarren igandean ospatzen da, aurtren, San Sebastian Egunarekin bat egin duelarik.

Lasterkariak San Frantzisko elizaren paretik iristen dira, eta toki berean ematen diote amaiera. Tolosako nahiz eskualdeko beste herrietako haurrek hartzen dute parte, nahiz eta eskualdeko hiriburuko elkarte batek antolatu.

Haurren garapen pertsonala zaintzeko eta bultzatzeko asmoz sortu zen duela 21 urte Ero-etxeko krosa. Etenik gabe, hainbeste urtean jokatu ondoren, indar gehien duen kirol festa errotuenetako bat Tolosan. Festa handi bat bailitzan, ikaskide, lagun nahiz familiako hainbat kide gerturatzen dira korrikalari txikiak animatzera.



## Iruñeako erailketa gaitzetsiz

**TOLOSA** » Hainbat lagun bildu ziren atzo iluntzean Triangulo plazan, Iruñean izandako erailketa salatze-ko. Joan den larunbatean, 20 urteko emakume bat hil zuen gizonezko batek. Hori dela eta, eraso hau gaitzesteko, elkarretaratzea deitu zuten Tolosaldeko Emakumeen Mundu Martxako Plataformakoek. Hauen esanetan, «erailketa, emakumeen aurkako in-

darkeriaren ondorio larrienetakoa da». Dena den, beste hainbat eraso pairatzen dituzten emakumeak ere ezin direla ahaztu azpimarratzen dute. Hau dena, emakume eta gizonen arteko harreman jerarkikoaren ondorio dela uste dute, eta horren aurrean, aldarrikatu, emakumeak bere eskubide guztien jabe izan behar dutela. ESTI EZEIZA

### S Soka motzean

## «Animalia bat edukitzeko baldintza egokiak behar dira»

**ANDER ARRIETA**  
Albaitaria

### ERREDAKZIOA

20 urte inguru daramatza Ander Arrietak (Tolosa, 1963) albaitari lanetan, Ibaiondo klinikan. Esan daiteke, oso ongi ezagutzen dituela animaliak.

**Albaitari izatearena bokazio kontua al da?**

Bai, niri betidanik gustatu izan zaizkit animaliak.

**Zein da klinikara ekarri duten animalia bitxiena?**

Behin kokrodilo bat ekarri zuten hanka batean zauri bat zuelako. Zirko batekoa zen.

**Zein maskota esango zenue dagoela modan?**

Animalia bat baino, txakur arrazak egoten dira modan. Orain, asko ikusten dira, Bulldog-ak eta Golden Retriever-ak.

**Ba al daukazu animaliarik etxean?**

Orain ez, lehen izan nuen txakur bat, urte askotan.

**Zein animalia gustatuko litzaizuke izatea?**

Animalia bat edukitzeko baldintza guztiak izan behar dituztokia, denbora... Hala balitz, agian, katu bat edo txakur bat.

**Kasu bitxiaren bat?**

Behin, pintxo moruno baten makila barruan zuela ekarri zuten txakur bat.

**Erraza al da animalia bat etxean izatea?**

Zailena txakurra edo animalia ulertzea da. Askotan gaizki ulertzen dira beraien beharrak eta hortik etortzen dira arazoak.



INIGO TERRADILLOS

**HAU GAZTERIA...!**

Gipuzkoan 30.000 gaztek baino gehiagok unibertsitate ikasketak dituzte

**JAKINA**

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputazioaren Foral de Gipuzkoako  
Gizarte Politikako Departamentua  
Departamento de Política Social



# Pekingo Olinpiar Jokoak gero eta gertuago ditu Leire Olaberriak

## Ikaztegieta »

Txirindulariak bosgarren egin du sailkapen proban Los Angelesen jokaturiko Munduko Kopan.

## ERREDAKZIOA

Munduko Kopa UCI Pista 2007-08 Txapelketako hirugarren proba jokatu dute pasa den asteburuan Los Angelesen (AEB) eta CESPAA-Euskadi taldeko Leire Olaberriak bertan parte hartu du; ikaztegiarrak bosgarren postua lortu du, sailkapen proban.

Taldeko arduradunek adierazi dutenez, Olaberriak puntuazio proban lortu duen bosgarren postu hau «oso garrantzitsua» izan da. «Horrelako lasterketa batean bos-

garren amaitzeak esan nahi duenaz gain, UCIn rankinerako puntuak gehitzen ditu», gaineratu dute.

## Sailkapen orokorrean hamaseigarren

Beijingo Olinpiar Jokoetarako sailkatzeko ezinbestekoa da pun-

## Jazarpn proban, Olinpiar Jokoetarako lekua izatea zailagoa izango du ikaztegiarrak

tuak batzea. Los Angeleseko lasterketaren ostean, 16. postuan da ikaztegiarra eta Beijing-erako 20 txirindulari sailkatuko dira.

Sailkapen prozesua konplexua da, baina oraindik hiru proba ga-

rrantzitsu daude aukerak gehitze-ko: Espainiko Txapelketa (otsailaren 1etik 3ra Palman), Munduko Kopako 4. proba (otsailaren 15etik 17ra Danimarkan) eta Munduko Txapelketa (martxoaren 16tik 20ra). Hain zuzen ere, Olinpiar jokotarako lekuak orduan erabaki-ko dira.

Halaber, jazarpn proban, Leire Olaberriak hobekuntza nabarmena erakutsi du. Joan den urtean Los Angeleseko proban baino 2. segundoko gutxiago behar izan du aurren proba berdina burutzeko. Datoren konpromisoetara begira, marka hobetzeak baior uzten du ikaztegiarrak txirindularia, «esaterako, Espainiako Txapelketan marka hobetzea». Hala ere, Olinpiar Jokoetarako proba honetan lekua izatea zailagoa da berarentzat. Izan ere, 12 txirindulari bakarrik izango dute horretarako aukera eta Olaberria 15. postuan dago.

## Manchester-erako txartela «ia poltsikoan»

Olaberriak, amaitu berri den Munduko Kopan eginiako lanari esker, Manchester-en egingo den Munduko Txapelketarako, aipatuta bi probatan, lekua «ia ziurtatuta» duela adierazi dute arduradunek.

# Tolosak berdinketa erdietsi du Durangoko Kulturalaren aurka

**Tolosa** » 21 punturekin 15. postuan daude tolosarrak; hurrengo partida Zarautzen aurka jokatu dute.

## ERREDAKZIOA

Tolosa CFren nagusien taldeak, hau da, 3. mailako taldeak berdinketa erdietsi zuen Durangoko Kulturala taldearen aurka. Hutsna amaitu zuten partida, eta ondorioz, puntu bakar hori batuta, hamabosgarren postuan dira tolosarrak 21 punturekin. Denera, denboraldia hasi zenetik 5 partida irabazi ditu Tolosak, 10 galdu eta 6 berdindu. Hirugarren mailako liderra 44 punturekin Zalla taldea da, bigarren postuan 37 punturekin Gernika dago eta hirugarren, berriz, Zamudio 35 punturekin. Tolosakoen atzetik, berriz, bost talde daude: Beasain 20 punturekin, Laudio 19 punturekin, San Pe-

dro 18 punturekin, Vitoria 18 punturekin eta azken postuan Durangoko kulturala 17 punturekin. Hurrengo norgehiagokari dagokionez, Zarautzen aurka jokatu dute tolosarrak.

## Gainerako mailak

Tolosa CFren beste taldeek ondorengo emaitzak erdietsi zituzten pasa den asteburuan jokaturako partidetan: Nesken 3. mailako Tolosak 5-3 irabazi zuen Hermaniren aurka; Jubenilen Ohorezko dibi-sioan, Tolosak 1-5 galdu zuen Lagunak taldearen aurka; Lurraldekako 1. mailan, Gure Txokoak 2-1 irabazi zion Tolosari; Jubenilen Ohorezko mailan, Tolosak 1-0 irabazi zion Urolari; Kadeteen Ohorezko mailan, Aloña Mendik 2-1 garaitu zuen Tolosa; Kadeteen 1. mailan Euskaldunak 0-4 galdu zuen Tolosaren aurka; eta Infantilen Ohorezko mailan, Arrasatek galdu egin zuen Tolosaren aurka, 1-4ko emaitzarekin.

## Laburrak

### Kaldereroetarako entsegu orokorra egingo dute gaur

**ANOETA-IRURA** » Hilaren 25ean, ostiralarekin, Kaldereroen irteera egingo dute Anoetako plazatik abiatu eta Iruraino, 18:00etan, Anoetako eta Irurako udalek eta Loatzo musika eskolak antolatuta. Bertan parte hartzeko entsegu orokorra gaur egingo dute 18:30ean Anoetako ikastolan. Antolatzaileek entseguetara joatea eskatu dute.

### Hautzaindegiari buruzko bilera egingo dute gaur

**ALBIZTUR** » Gaur Albizturko Kultur Etxean haurzaindegiari buruz hitz egiteko bilera antolatu dute, 17:00etatik aurrera, Albizturko Udalak deituta. Bertara interesa duten gurasoak deitu dituzte. Bileraren helburua gaur egungo egoera zein den azaltzea izango da eta aurrera begira eman beharreneko pausuak zein diren azalduko dute.

### EHNA tramitatzeko aukera zabaldu du Udalak

**ALTZO** » Altzoko Udaletxean Euskal Herriko Nortasun Agiria (EHNA) tramitatzeko aukera zabaldu dute urtarria eta otsaila osoan zehar. Udaletxeak duen ordutegiaren baitan egin ahal izango da tramitazioa (12:30etik 15:30era bitartean, hain zuzen) eta 3 argazki, 15 euro eta errolda agiria behar da hau egiteko. Informazio gehiago, Udaletxean.

### Sahararrei laguntzeko janari bilketa amaitzear

**TOLOSALDEA** » Amaitzear da sahararrei laguntzeko janari bilketa, eta Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideek herritarrek parte hartzea animatu nahi dituzte azken egun hauetan. Aurtengo kanpainan arrosa, hegaluzea, azukrea, dilistak eta konpresak utzi beharko dira. Eskualdeko hainbat herriko Kultur Etxe, udaletxe eta supermerkatuetan utzi ahaliko dira.

### Karroza eta konpartsetan izen-ematea, Aranburun

**TOLOSA** » Datorren astean, hilaren 31ean izango da Ostegun Gizena, eta orduan hasiko dira Inauteriak Tolosan. Inauterietako karroza eta konpartsa lehiaketarako izen-eman nahi dutenek azken eguna ostirala, hilaren 25a izango dute. Horretarako, Aranburu Jauregira jo beharko dute interesatuek, arratsalde, 17:30etik 20:30erako ordutegian.

## Z Zurea da hitza info

# Alliri pasealekuko lurra konpontzea eskatzen dut

**Tolosa** » Lurreko baldosak gaizki jarrita daude eta arriskuatsuaz gain ez da batere erosoa horrela ibiltzea gure auzoan

## AITOR (TOLOSARRA)

HITZA egunakariaren atala aprobetxatu nahi dut kexa bat plazaratzeko. Alliri pasealekuan bizi naiz ni (Tolosak Geltokiko auzotxo "berri" hori) eta lotsagarria irudi-

tzen zait zonalde berria izanda lurrak duen egoera. Tartean dagoen parketxoan dena oso ondo dago eta txukun. Baina zer gertatzen da portalak atzealdean ditugunokin? Ni bizilagun horietako bat naiz eta garajetik ez banaiz sartzen, hau da, kaletik sartu behar badugu, non zapaldu oso ondo kontrolatuz sartu behar dut etxera. Zergatik diot hori? Baldosa guztiak altxata daudelako, gaizki ipinita. Uria egiten duenean bustitzeko arriskua oso handia da, baldosa okerrren bat za-

palduz gero. Gainera gero dena lorraz-eta geratzen da. Gehiegi eskatzea al da lurra konpontzea? Zonalde berrietan hau gertatzen bada ez det pentsatu ere egin nahi zaharrak zein utzita izango dituzten!

Ez da kexatzen garen lehenengo aldia baina lurrak bere horretan jarraitzen du eta inorrek ez du konpontzen. Dagokionari, mesedez kasu pixkat egin tolosarroi eta herrira txukun mantentzea ez da bakarrik erdigunea apaintzea.

## Z Zurea da hitza info

### Nola daude lapurretak azkenaldian?

## IRURAR BAT

Kaixo! Iruran bizi den bizilagun urduri xamar nago herrian eman diren lapurrekin. Badakit etxetara ez direla oraindik sartu baina herritar bezala informazio pixkat eduki nahiko nuke, ea berririk ote dagoen honen inguruan.

Lotsagarria iruditzen zait gertatzen ari dena. Irura herri lasaia da eta bizia duena eta horrela jarraitzea nahiko nuke. Baina egia esan, nire umeengatik beldur pixka bat badut. Norik eman diezaidake informazio pixkat?

## B Blogteka info

### Tolosako Musika Bandako kide ohientzako deialdia

Urtarrilaren 27an, igandearrekin, urtero bezala, Inauterietako kontzertu berezia eskainiko du Tolosako Musika Bandak, Berdura plaza eguerditik aurrera. Musika bandan aritutako musikari guztiak gonbidatuta daude kontzertu honetan parte hartzera. Horretarako, kontzertua prestzeko entseguak asteartean (gaur) eta ostegunean (etzi) izango dira, 20:30etik aurrera Tolosako Udala Musika Eskolan.

### Tolosako Musika Banda

<http://www.tolosaldkehitzza.info/blogak/banda>

## E Elkarrizketa

**Ehiza** » Gipuzkoako eta Euskadiko Oilagor txapelketetan parte hartu ostean Espainiakorako sailkatu zen; bertan bigarren postua lortu du tolosarrak

### ENERITZ MAIZ

Pello Iburguren (Tolosa, 1963) ehiztariak, lehen aldiz parte hartu du oilagorren txapelketa batean. Gipuzkoa eta Euskadiko Txapelketetan postu onak lortu ostean, Ezprogi-Sabaizan (Nafarroa) Espainiako Oilagor Txapelketan parte hartzea lortu zuen bertan bigarren postua lortuz. Bere etxean hartu gaitu txapelketaz eta ehizaz hitz egiteko.

#### Noiz hasi zinen ehizan?

Hamasei urterekin hasi nitzin ehizan eta ia bizitza osoa daramat. Koinatuarekin hasi nintzen eta hau da gustatzen zaidana eta beti oilagorretan ibili naiz. Orain semeak tentatzeko zerbait usotara ere joaten naiz baina gutxi.

#### Noiztik hartzen duzu parte hone-lako txapelketetan?

Oilagorren txapelketa batean parte hartzen dudana lehen aldia da hau eta batik bat semeei tentatzeko izan zen. Beti esaten nien semei txakur oso ona dudala eta kontra egiten zidaten. Orduan, txapelketaren batean parte hartuko nuela esan nien eta bertan erakutsiko niela benetan zer nolako txakurra dudana. Lehenengo Leitzararen egin zen Gipuzkoako Txapelketan parte hartu nuen eta laugarren postua lortu nuen. Ondoren Araban egin zen Euskadikora joan nintzen eta bertan hirugarren geratu nintzen. Jarraian, Nafarroan egin zen Espainiakoa etorritzen eta bigarren sailkatu nintzen.

#### Espero zenuen bigarren postua lortzea?

Ni konfiantzaz joan nintzen baina oilagorrek aurkitu egin behar dira eta beti duzu zalantza hori baina oso esperientzia ona izan zen. Egia esan, asko ibili behar izan genuen baina lursaila oso polita zen. Nafarroako Gobernuak duen erreserba da eta bertan basurdea baino ez da ehizatzen eta ehiza xehea ez da ukitu ere egiten. Lur zati handia eta oso polita zen, ia dena pinua sartua duena.

#### Nola izaten da txapelketa?

Aurreko egunean Xabierko hotelera eraman gintuzten eta ehiztari bakoitzak epaile bat eramaten du berarekin. Honek hurrengo egunean beste ehiztari batekin ibili behar du epaile lanak egiten. Epaile bakoitzak zein ehiztariarekin joan behar zuen jakiteko zozketa egun horretan egin zen. Eta hurrengo goizean bederatzietarako denok batera txapelketako lekura eraman gintuzten eta irteera ema-



HITZA

# «Ehiztariak txakurrak egindako lana amaitzen jakin beharra dauka»

tean denok korrika abiatu ginen mendian sakabanatuz.

#### Zein arau dira bete beharrekoak?

Bederatzietan irten eta ordu bi eta erdiak arte genuen denbora. Bost minutuko atzerapen bakoitzeko puntuak kentzen dizkizute eta hirurak baino beranduago helduz gero kanporatu egiten zaituzte.

#### Lau oilagor botatzea lortu zenuen.

Bai, lau oilagor bota nituen. Bost aurkitu nituen baina lau botatzea lortu nuen. Egun batzuk lehenago izan nintzen lekua piska batezaguteren eta egia esan kostatu zitzaizdan oilagorrek aurkitzea. Lehenengo mendi tontorretara joan nintzen eta ez nuen ezer topatu. Gero hezetasuna zegoen lekura joan nintzen han egongo zirelakoan baina

ez zeuden. Eta azkenean babesa zegoen lekuan aurkitu nituen. Lehenengo botatzerako jada goizeko hamaiak joak zirene eta jarraian utzi egin behar izan nuen orduagatik zeren kontrolako puntuatik hiru bat kilometrotara nengoen eta orduz kanpo iristeko arriskua nuen.

#### Maila handia zegoen?

Benetan maila gogorragoa Euskadiko Txapelketan zegoen. Hemen dago mailarik onena duen jendea: Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroan. Batzuk konpetiziorako grinarekin zeuden baina orokorrean oso giro ona egon zen 24 parte-hartzeileon artean.

#### Txakurra ezinbestekoa izango da, ezta?

Bai, oilagor ehizarako ardatz garrantzitsua da, bera da gakoa.

#### Zer eduki behar du txakur batek ona izateko?

Hasteko zaletasun eta pasio handia eduki behar ditu, azken batean bera da protagonista. Ehiztariak nolabait txakurrak egindako lana errematatzen du, hau da, txakurak egindako lana amaitzen jakin behar du. Horretarako txakurra nola jarri den, urruti duen... bere jokaera ezagutu behar duzu. Bestetik, asko ibili behar du mendian, erresistentzia handia behar du ordu luzez ibiltzeko eta behin oilagorra aurkitzen duenean lana ongi egiten jakin behar du. Oilagor batzuk besteak baino gaiztoagoak dira, beste batzuk ibili egiten dira edo hegan egin eta aurrerago gortetzen dira... Orduan txakurrak jakin egin behar du nola lan egin.

#### Zein arrazatakoa da zure txakurra?

Sei urte dituen Seter Ingeles arra da eta Larizena du. Txapelketa honen erdia baino gehiago berea da, gustua ematen du nola lan egiten duen ikusteak!

#### Zenbat txakur dituzu?

Bi txakur ditut eta biak arraza berdinekoak dira. Urteak eman ditut txakur on bat izan arte. Lan asko egin behar da txakur ona izateko. Mendian asko ibili behar duzu, ehizatu egin behar du eta nola ez, oilagorrek ikusi behar ditu. Poliki-poliki esperientziarekin ikasten joaten dira. Neurri batean berezkoa ere izan behar du; alferrik da

#### «Txapelketa honen erdia baino gehiago Larrena da; gustua ematen du nola lan egiten duen ikusteak»

#### «Niretzat Euskadiko Txapelketa izan zen zailena; bertan dago mailarik handiena»

asko ibili baina oilagorren aurrean ez badu lana ongi egiten edo oilagorren aurrean lana ongi egin baina hankapetik ez baizaizu ateratzen.

#### Zuk esandakoari ere kasu egin beharko dio, ezta?

Bai bai. Txakurrak beti ehiztariak egiten duenarekiko zalantzan egon behar du. Goruntz edo beruntz zoazen, norabidez aldatzen duzun...

#### Ehiztari bakoitzak eramaten duen epaileak zer lan egiten du?

Epaileak ehiztariak egiten duen guztia apuntatzen du. Berak benetan oilagorra aurkitu duzula ziurtatzen du, ez zarelakotatik atera, bi tiro baino gehiago jarraian ezin dituzu bota, bestela deskalifikatu egiten zaitu. Zenbat oilagor bota dituzun eta zein ordutan ere apuntatzen du baita kontrolera noiz iristen zaren ere. Kontrolera iristean guztia bat datorren begiratzen dute antolatzaileek.

#### Nolak eskopeta erabiltzen duzu?

Errepetidora simple bat erabiltzen dut. Jada hogeita bi urte ditu, ez du hutsik egiten eta hortxe dabil nirekin batera eta bestera.

#### Eta zer izan zen lortu zenuten saria?

Txakurrarentzat pensu zaku bat, trofeoa eta ehizerako txalekoa eta horrelako gauzatxo batzuk. Baina azken batean saria bertan egotea, asteburua giro atseginean pasatzea eta ehiza egitea izan zen.

#### Hurrengo txapelketan berriz aterako beharko zara ezta?

Bai aterako naiz baina hutsetik hasi beharra daukat. Lehenengo Gipuzkoakoa, gero Euskadikoa eta sailkatzen bagara Espainiakorara. Zailena Euskadikoa izan zen, niretzat, hor dago mailarik handiena eta nafarrari irabaztea ez da erraza, sei aldiz izan da txapeldun.

**L** **Laburrak****Gaur auto zozketaz eta tabernaz ariko dira bileran**

**IRURA** ■ Kilometroak 08 jaia Iruran egingo da. Horrela, auto-zozketaren txanda dute orain eta ekonomia batzordeak honen inguruko, bileran antolatuta du gaur 19:00etan, ikastolako areto nagusian. Zozketarako txartelak saldu ahal izateko irteerak egin behar direnez, txandak osatzeko jendea falta zaie. Bileran honetan aurrera doan tabernari buruzko informazioa ere emango dute: honetarako ere lanerako jendea beharko da. Bilerara azaltzerik ez duenak eta parte hartzeko prest dagoenak, ikastolan eman dezake izena, edota deituta: 943 694374.

**'Mihiluze' jokoan ariko dira bihar Kultur Etxean**

**ASTEASU** ■ Bihar, Kaxkagor elkarteak Asteasuko gazteekin batera, bertako Kultur Etxean, *Mihiluze* jokoan jolasteko topaketa bat antolatuko dute 18:00etatik aurrera. 12-16 urte bitarteko Aiztondo balarako gazteei zuzendua dago (Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul eta Zizurkil). Izena eman nahi duten bikoteek gaur ere eman dezakete [kaxkagor@hotmail.com](mailto:kaxkagor@hotmail.com) helbidera mezu bat bidaliz.

**Gurasoei zuzendutako nerabeei buruzko hitzaldia**

**ANOETA** ■ DBHko ikasleen familiari: *Ai ene. Nerabe bat etxean!* hitzaldia izango da bihar Anoetako herri ikastolan, 18:30ean, Jose Francisco Amiamarekin. «Behin baino gehiagotan gure seme-alabei ulertzea eta laguntzea izugarriko erronka izaten da». Gorputzaren aldaketa onartu/ez onartu sortzen dituen egoeretan nola moldatzen gara?... «Honelako egoerez hitz egiteko bilduko gara». DBHkoen familiak daude gonbidatuta.

**Eskualdeko zaldunek ez dute podiuma egin**

**ZALDI LASTERKETAK** ■ Getariako V. San Anton Zaldi lasterketan Tolosaldeko hainbat aritu dira, baina ez dute podiuma lortu: Orendaingo, Bidaniako, Asteasu eta Albizturkoak izan ziren.

# Lapurreta saiakerak berriz ere, Orendainen, Amezketan eta Leaburun

**Gizartea** » Ez dute dirurik eraman ahal izan oraingoan, saiakerak frontoietan eta biltegi batean egin dituztelako.

**NEREA URBIZU**

Asteburu honetan ohikoak bihurtzen ari diren lapurreta gehiagok izan dira Alegialdean eta Ibaraldean: zehazki, Orendainen, Amezketan eta Leaburun, beti ere, Tolosaldeko Ertzaintzak jaso dituen salaketak kontuan izanik.

Orendainen frontoiko biltegiako atebortxatu zuten, baina ez zuten ezer ez eraman. Alguazilak esan bezala, «bertan Udalarenak diren tresnak daude, esaterako, esku motozerra, baina ez dute ezer ez eraman». Itxura guztien arabera, dirua egongo zelakoan sartuko ziren.

**Frontoietako makinak hautsita** Amezketako eta Leaburuko kasuetan, pilotalekueetan izan dira lapurrak, baina argia piztu ahal izateko dauden txanpon-fitxa makinak hautsi dituzte eta bertan haiek

uste bezala, zegoen dirua eraman nahi izan zuten. Esku hutsik joan ziren, ordea.

**Alegiatik ere pasa dira**

Alegian ere lapurretak izan dira eta aurrekoan bezala, oraingoan ere jubilatuen tabernan sartu dira, baina ez dute salatu nahi izan, bere horretan utziz. Joan den urte bukaerako lapurretan kaxa eta txanponjalea hautsi zuten, dirua eraman ez. Honakoan ere berdin egin zuten.

**Ertzaintzak adierazitakoa**

Ertzaintzak esan duenez, Irurako lapurretakin larritu dira gehienbat: «Asko izan dira azkenaldian eta denbora gutxian. Kontrol gehiago izango da zentzu horretan, Ertzaintzaren presentzia herrietan areagotuz. Neurriak hartuko ditugu».

Azken hilabeteetan Tolosaldeko herri txiki askotan ibili dira lapurrak, eta balio handiko gauzarik aurkitu ez badute ere, kalte batzuk eragin dituzte, eta jendearengan kezka apur batsortu ere bai. Gainera, askotan, alarmek ez dute askorako balio.



Belautzan lapurtzen saiatu ziren duela aste batzuk, besteak beste. ASIER IMAZ

**» LAPURRETAK**

■ **2007-11-20.** Alegiko taberna batzuetan.  
■ **2007-12-12.** Orendaingo ostatua eta Alegiko taberna batzuetan.  
■ **2008-01-02.** Iruran lapurretak: Zaharren Biltokian eta Laskibarko enpresa batean.

■ **2008-01-09.** Irurako San Migu-el elizako sakristian.

**Joan den urtean**

■ **Otsailan.** Albizturko ostatuko plasma telebistak hartu zituzten.  
■ **Martxoan aldera.** Orendaingo ostatua.



## «Independentzia eta Euskal Nazioaren aldarrikapena» Altzon eta Alegian

**POLITIKA** ■ Herenegun EAE-ANVk atera duen aldarriaren aldeko atxikimendu bilketa egin zuten Altzon eta Ikaztegietan. Aldarria sinatu zuten. Altzon 75 lagunek sinatu zuten eta ondoren argazkia atera zuten. Bukatzeko, hamaiketako bat egin zuten elkartean «oso giro onean». Alegian, berriz, 50 lagun inguru bildu ziren. Plazan atera zuten lehen argazkia eta ondoren kalejira modukoa egin zuten, bigarren argazkia ateratzeko. HITZA/EDUARDO ARRAYET

**H** **Hilberria****JUAN LIZARRALDE MARTIARENA**

Joan zara baina gure artean izango zaitugu beti



Oharra: Gorpuaeren lurperatzea gaur izango da, 11:00etan. Hileta elizkizunak Oiarzungo San Esteban parrokiari izango dira, gaur, 19:00etan.

**OIARTZUN**  
2008ko urtarrilaren 22a

**JOSE LUIS ANSOLA ARRIETA**

Jauna

-Goian bego-

Zure ondoan egotea zen guretzako oparirik onena beti jaso dugu guk zuregandik maitasuna. Betirako gurekin Muxu bana



**Euxebio, M<sup>ñ</sup> Karmen, Iker eta June**

**ZESTOA**  
2008ko urtarrilaren 22a



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Orendainen San Sebastian ermitara txistularien atzetik joan ziren kalejiran herritarrak. ANDER OTEZABAL

## Leaburu-Txaraman eta Orendainen San Sebastian Eguna ospatu zuten

### Tolosaldea »

Ekitaldi ezberdineko ospatu zuten bi herrietan herenegun santuaren eguna.

### ASIER IMAZ

Leaburu-Txaraman eta Orendainen aurkitzen dira San Sebastian ermitak gure eskualdean. Herenegun, urtarrilaren 20an, santuaren eguna zenez bi herrialde hauetan jai eguna ospatu zuten ermitaren inguruan lehenik eta Leabururen kasuan, herriko plazan ondoren.

### Leaburu-Txarama

San Sebastian Eguna 11:00etan hasi zen ermitan, meza bertan egin zelarik. Ondoren herriko dantzariak dantza emanaldia eskaini zuten ermitaren kanpoan.

Goizeko azken ekitaldia Zazpi Bide Elkartearen antolatuta zuten, bertan egin baitzuten hamaiketako.

Arratsaldean Leaburuko plazan burutu ziren San Sebastian Eguneko egitasmoak. 16:00etan haur jolasak egin ziren eta ondoren txokolatada.

### Orendain

Leaburun bezala Orendainen ere, meza herriko ermitan ospatu zuten. San Sebastian ermitara txistularien kalejiraren atzetik joan ziren herritarrak. Ondoren, hamaiketako egin zuten udaletxean eta jai egunarekin amaitzeko, bazkariaburutu zuten Orendaingo Eltxo Elkarte.



Leaburuko plazan haurrentzat jolasak antolatuta zituzten. ANDER OTEZABAL



Meza ostean hamaiketako egin zuten orendaindarrek udaletxean. A. OTEZABAL



Regina Otaola (PP) prentsaurreko batean Lizartzako udaletxean. A. IMAZ

## 2008. urterako aurrekontuak onartu ditu Udalak

**Lizartza** » Larrenea zubiko lanak hurrengo astean has daitezkeela aipatu du Manuel Michelena PPren zinegotziak.

49.000 euro. Atal honetan, hilerria argiztatzeko eta errepeidea hobetzeko lanak aurrekusten dira besteak beste. Herriko plazan aparkaleku bat eta haurrentzako parkearen hobetze lanak egitea aipatu dituzte.

### A. IMAZ

Atzo goizean eginiko ohiko udal bilkuran, 2008rako Lizartzako aurrekontuak onartu zituzten Alderdi Popularreko kideek.

Bertan erabakitakoaren arabera, «Larrenea zubiko lanak hurrengo astean» hasiko direla jakinarazi zuen Manuel Michelena zinegotziak.

Atzo onartutako aurrekontuak 618.000 eurokoak izan ziren Alderdi Popularrak jakinarazi zuzenez.

### %35 gastu pertsonalak

Aurrekontuaren %35a gastu pertsonaletarako zuzenduko dute, hau da, 618.000 eurokoa baldin bada aurrekontua, hauetatik 217.000 euro izango dira gastu pertsonaletarako bideratuko direnak. 215.000 euro ohiko gastuetarako zuzenduko dira. Inbertsioei dagokienez, aurrekontuaren %8a baino gutxiago jasoko dute, hau da,

### «Kreditu eskaera»

Regina Otaola alkateak jakinarazi duenez, Lizartzako Udalaren zor maila kontuen %5ekoa omen da. Honen aurrean, eibartarrak kreditu baten eskaera egitea aztertuko duela jakinarazi du. Honetaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan dagoela aipatu du, diru iturri handiagoak lortzeko asmoz, «proiektu berriak bultzatzeko».

### «Larrenea zubia»

Manuel Michelena (PP) zinegotziak hitzegin du Larrenea Zubia inguruan. Honen esanetan, lanak hurrengo astean has omen daitezke. Gipuzkoako Diputazioak 125.000 euro jarriko omen ditu berritze lanetarako eta proiektuaren ikerketa ordainduko omen du. Lanen zuzendaritza berriz, Asmatu enpresa eta udaleko arkitektoak eramango omen dute Michelena-ban esanetan.

## Laburrak

### Kaldereroetarako entsegua gaur 17:00etan

**IBARRA** » Loatzo Musika Eskolak, Hauspoak eta Uzturpe Ikastolak Kaldereroak antolatuta dituzte ostiral honetarako. Entsegua gaur egingo dute jaia prestatzeko Uzturpe Ikastolan 17:00etan. Parte hartzeko deialdi zabala egin dute.

### Uzturpe Ikastolaren Kultur Astea bi hitzaldi gaur

**IBARRA** » Uzturpe Ikastoalk antolatu duen Kultur Astearen barnean, gaur bi hitzaldi egingo dira. Lehena 15:30ean ikastolan eta bigarrena 18:30ean Kultur Etxean. *Herri izkurtuak* eta *Elikadura* gaiak aztertuko dira.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta/Idaia:** 687 410 022. anoeta/idaia@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra/Idaia:** 687 410 032. ibarra/idaia@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza/Idaia:** 687 410 118. leitza/idaia@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

- **Altzo.** Candanchura eskiatzera joateko autobusa antolatu dute, 3 euroren truke. Izena udatekxan eman behar da (943 65 24 13). Otsailaren 10ean joango dira 06:30ean ateraz. Izena emateko azken eguna, otsailaren 1a (ostirala).
- **Berastegi.** Larunbaterako Inauteri Eguna antolatu Aldin kultur elkarteak. Afarirako txartelak salgai daude Zelai taberna eta Urepele elkartearen 20 eurotan.
- **Ibarra.** Martxoan kartzelatik aterako diren Eider Ijurko eta Ekaitz Aramendi euskal presoengintoria prestatzeko bilera Kultur Etxean 19:00etan, Ibarra herri ekimenak antolatuta.
- **Irura.** Kilometroak 2008aren baitan autoaren zozketa egiteko bilera egingo dute, 19:00etan, Iru-ko Ikastolako areto nagusian.
- **Tolosa.** Tolosa Munduan ziklorako abonoak salgai daude Kutxanet-en.
- **Tolosa.** Inauterietako Danborradako entseguak hilaren 21ean, 22an, 23an eta 24ean Kultur Etxean 20:00etan eta hilaren 29an Udal Musika Eskolan 20:00etan.
- **Tolosa.** Tolosako Musika Bandak hilaren 27an eskainiko duen Inauteri kontzertuan parte hartzeko gonbitea egiten die Bandako kide ohiei. Entseguak, asteartean eta ostegunean 20:30ean Udal Musika Eskolan.
- **Tolosa.** Inauterietako karroza eta konpartsa lehiaketarako izen-



## Txistulari eta Musika banden bisita

ematea Aranburu Jauregian egin daiteke, asteartetik larunbatera 17:30etik 20:30era.

### Hitzaldiak

- **Ibarra.** Javier Anton AVAPSI elkarteak kideak *Elikadura: anorexia eta bulimia* hitzaldia emango du Benito Izagirre kultur Etxean 18:30ean, Uzturpek antolatuta.

### Kirola

- **Tolosa.** Oargik asteburu honeta-

rako irteera antolatu du Portaletara mendiko eskia egitera. Izen-ematea, 637 830380 zenbakian.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.
- **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

**TOLOSA** Tolosako lurreamendiko egoiliarrek bisita berezia jaso dute asteburuan. Izan ere, Udal Txistulari Bandak eta Tolosako Musika Bandak urteroko kontzertua eskaini zuten pasa den igandean, Tolosako lurreamendi egoitzan. Bertan bilduriko ikus-entzuleek gustura jarraitu zituzten bi banden Kalderero, Donostiako Danborrada eta Inauterietako doinuak, tarteka eurek ere doinu batzuk ere abestu zituztelarik. Argazkian ikus daitekeenez, bertaratuek adi-adi jarraitu zioten kontzertuari. Une honetan, Udal Txistulari Banda ageri da, kasu honetan Xabier Zelaia-zen zuzendaritzapean. JOXEMI SAIZAR

## A Agurrak



Urte Askoan!

Gari! Zorionak maite haugun guztion partetik! Muxu eta besarkada iraultzaile bat!

hitza ren eskutik

**G PUNTUA**  
IPUZKOAKO BERTSOLARI  
TXAPELKETA 2007

Finaleko DVDa

Finaleko bertsaldi hautatuak



Hitzaren harpidedunentzako eskaintza berezia 6 €

Deitu: 902-82 02 01



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

hitza